

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Ramon Gomez Ugaldek, Udalbatzaren Organo Araudiko 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egin nahi dio alkateari, hiriko plan estrategikoa dela eta, osoko bilkuran azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA:

Hiri batek etorkizunari nola begiratzen dion giltzarri izaten da hiria eta ekonomia ondo garatzeko eta biztanleen bizi kalitatea hobetzeko.

Ikuspegi edo estrategia hori gogoeta eginez eta plan estrategiko bat landuz zehazten da, hiri eredu argi bat oinarri dela.

Horretarako, kontuan hartu behar da zer aldaketa sozioekonomiko nozitzen ari garen, hala nola krisi ekonomikoa, zahartzea, immigrazioa, globalizazioa, industria produkzioaren deslokalizazioa eta hirien arteko lehia.

Helburu horrekin egin zen 2010eko plana, E2020DSS izenekoa, begirada 2020. urtean jarrita. Plangintza tresna estrategikoa zen hura, izaera estrukturala zuena, eta tokiko kudeaketaren tresna gisa finkatu zen.

Hiriko plan edo estrategia hori lantzeko, herritarrek parte hartzeko eta kolaboratzeko prozesu zabal bat egin zen, eta halaxe lortu zen eragileek eta herritarrek, oro har, hiriaren ekonomia eta giza garapenarekin konpromisoa hartzea.

Alabaina, oraingo legealdi hau hasi zenean, argi ikusi genuen udal gobernu berriak ez zuela hiri eredurik eta ez zuela onartzen plan estrategikoan ezarritako ereduare.

Horregatik, ia hiru urtean ez du Gizarte Kontseilurako deialdirik egin, nahiz eta kontseilu hori den, herritarrek parte hartzeko organo gorena ez ezik, Donostiaren garapenari buruzko erabaki handiak eztabaidatzeko lekua ere.

Pena da legealdi oso bat galdu izana, eragile sozioekonomikoen eta donostiarrek ezarritako strategiari ez jarraitu izana udal gobernuak.

Eta are okerragoa dena: geratu egin da donostiarren belaunaldi baten garapen ekonomikoa eta soziala.

Ikuspegi falta hori dela eta, donostiar askok ez du gaur etorkizun aukerarik gure hirian, batez ere gazte jendeak.

Horixe da Bilduren udal gobernua donostiarroi utziko digun ondarea.

Hori dela eta, hauxe da nire INTERPELAZIOA:

- Alkateak zergatik ez du erabili nahi izan E2020DSS Plan Estrategikoa, eragileek eta donostiarrek definitutako eredu gisa, Donostiaren garapen sozioekonomikoa indartzeko?

Donostia, 2015eko apirilaren 9a

Ramon Gomez Ugalde,
Talde Popularraren bozeramailea.